

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

**DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA**

**Foru Gobernu Kontseiluaren 53/2017 Foru Dekretua, urriaren 17koa, zuzentzen duena abuztuaren 3ko 40/2017 Foru Dekretuan, informazio publikoa ematearen prezio publikoak onartzen dituenean, egindako hutsa**

Esa gabe utzi zen adierazitako prezio publikoen zenbatekoa BEZa barne zela.

Horregatik, Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoak bere egunean emandako txostena eta Araubidezko Garapenerako Zerbitzuak haren harira egindakoa ikusirik, diputatu nagusiak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

**XEDATZEN DUT**

Bakarra. Zuzentzea, esan gabe uzteagatik, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2017 Foru Dekretuak, informazio publikoa ematearen prezio publikoak onartzen dituenak, 5.2 artikuluan egindako hutsa. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

2. Aurreko paragrafoan aipatutako tarifa edo zenbatekoak (BEZa barne) honako hauek dira:

2.1. Informazioaren euskarri gisa erabilitako materialen arabera:

A4 fotokopiak, zuri-beltzean, unitateko	0,04 €
CDak, unitateko	0,42 €
DVDak, unitateko	0,47 €
Geruza bikoitzeko DVDak, unitateko	1,26 €

2.2. Emandako informazioa bidaltzearen kostuaren arabera, pisu tartearik kontuan hartuta:

20 gramora arte	4,35€
50 gramora arte	4,43 €
100 gramora arte	4,68 €
500 gramora arte	5,44 €
Kilogramo batera arte	7,13 €
Bi kilogramora arte	7,48 €

**Azken xedapena**

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 17a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria*

**NEKANE ZEBERIO GANZARAIN**